



2020ko  
komertzio eta  
zerbitzuen gida

Eibarko kaleak  
eta iturriak



Eibarren  
**AKEBAI**

943 70 84 26  
943 70 84 44 (luz. 4201)  
eibarrenakebai@gmail.com  
www.akebai.eus  



"Hortz osasuneko  
profesional taldea  
zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51


info@clinicadentalarat.com  
www.clinicadentalarat.com  
Toribio Etxebarria 4-1, EIBAR



UniverSalud Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa



# sumarioa



2020ko GIDA  
Eibarko enpresa,  
zerbitzu, komertzio,  
tabernak...

67



Argitaratzailea: ...eta kitto! Euskara Elkartea Argitaratze-data: 2019ko abendua  
Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia Diseinua eta maketazioa: Ana Aizpurua  
Argazkiak: Ekhi Belar, Silbia Hernandez, Eibarko udal artxiboa  
Administrazioa: Marisol Uriarte Inprimategia: GERTU Lege Gordailua: SS-01351-2019

@etakitto @gaztekitto





# EIBAR kalerik kale

arrate-bide isasi kalea  
karlos elgezua mekola ubitxa  
arane kalea  
otaola hiribide  
ardantza kalea  
karmen kalea  
bolingua kalea  
bustindui-tarren  
egiguren-tarren  
murrategi kalea  
txonta kalea  
mutiola kalea  
muzategi kalea  
otaola balle karmen tiburzio ubitxa  
ego-gain  
eguzki-begi  
santaines kalea  
eibarko txikito  
elgeta-kale  
errebal kalea  
arikitzaneko zubia  
ubitxa kalea







### Abontza bide

Legarre Gain kaleari jarraituta eta Arrajolarako bidean dagoen kale horren izenari begiratu gero, 2004ko Eibarko toponimoen zerrendan bitxikeriarik aurki dezakegu. Izan ere, ikerketen arabera “Abontza” “Abauntzaga”-ren aldaera izango litzateke, “baina herri giroan hala esatea dotorekeria” izango litzateke eta hortik gehien hedatu den erabilera forma laburra izatea.

**Pegora kopurua: 3**



### Aldatze

Ardantzatik gora doan kaleari deitzen zaio Aldatze, bertan dagoen dorretxearen izena gogoan (XVII. mendean Juan López de Iñarrak berreraikia, Aldatze ez ezik Aldatsa, Elexalde eta Iñarra ere deitu izan zaio, Ego Ibarra batzordeak jasotakoaren arabera). 1915. urteaz gerostik Probidentziako Andra Mari ikastetxea hartzen du jauregiak.

**Pegora kopurua: 6**



## Amaña

Legarretik Amaña auzora sartzeraz goazela topatzen dugun katea da Amaña. Izen horren erreferentzia gure herriko toponimian aurkitu genezake, han inguruan egon ziren baserrietako bat gogoan.

**Pegora kopurua: 23**



## Apalategi

Azitainetik beherako bidean, Eltzartzaganeke zubi berreraikia duen errotondan hasten da Apalategi auzoa. N-634 errepidearen ibilbideari jarraitzen dio kaleak, Maltzagara bitartean. Eraikin gehienak errepidearen albo bietara dauden lantegiak dira.

**Pegora kopurua: 3**



## Arane

Bista Eder eta Urtzaile kaleen bitarteko kalea da Arane. Jata enpresak orain urte batzuk bete zuen tokian jasotako etxebizitza berriek kalea itxuraldatu badute ere, herrian oso hedatua dagoen kale-ereduari erantzuten dio, hau da, lantegiak eta etxebizitzak elkarren ondoan dituen kale-ereduari.

**Pegora kopurua: 7**



## Ardantza

Trenbideak kalea zeharkatzen zuela eta, bertan egon zen geltokiak ere kalearen izen bera jaso zuen. San Juan kaletik Aldatzerako bidera garamatzen kaleak aldaketa ugari izan ditu azken urteotan, bertan zeuden etxeak eraitsi eta babes ofizialeko berriak jasotzean. XX. mende hasieran jaiotakoek han ezagutu zituzten Garaje Eibarrés delakoa eta autobus deskapotableak.

**Pegora kopurua: 9**





### Arikitzaneko zubia

Arikitzaneko zubia Arragueta eta Ibarkurutze batzen diren puntutik Bidebarrietaraino doa perpendikularrean, eta, behin Bidebarrieta zeharkatuta, Urtzailera du jarraibidea.

**Pegora kopurua: 1.**



### Armagin

Kanposantu inguruko kale honek gure herriari izaera eman dion lanbideari zor dio izena. Eibarren armak egiten zirela idatziz jasotzen duen lehenengo agiria 1482. urtekoa da, Medina Sidoniako dukeak aginduta egindako Ionbarda biren berri ematen duen dokumentua, baina seguruenik armagintza lehenagotik lantzen zen Eibarren. Lanbideak izan duen garrantziarengatik ez da harritzekoa armaginei kalea eskaintzea.

**Pegora kopurua: 3**



### Arragueta

Arraguetatik, Urkizutik gora, Ibarkurutzeraino doan kaleak, historia luzea eta nortasun berezia du. Ambrosio Atxa 'Itxasok' kanta eskaini zion: "Arragueta Kalian". Abesti batentzako aitzakiaz gain, seme-ilustrerik ere eman du kale horrek: 1893ko San Andres egunean Arragueta kaleko 6an jaiatu zen Pedro Basauri Pagoaga, Eibarko Pedrucho toreatzailea.

**Pegora kopurua: 18**



### Arragueta zeharra

Arragueta eta Bittor Sarasketa bitartean dagoen pasabideari, kale labur horri, deitzen diogu Arragueta zeharra. Etxebizitza gutxi egon arren, jendeak asko erabiltzen duen pasabidea da; besteak beste, Arraguetatik tren geltokira ailegatzeko Estaziño kaleraino joan eta hura zeharkatzea saihesteko aukera ematen duelako eta, horrez gain, hainbat enpresa hartzen duelako.

**Pegora kopurua: 2**



## Arrate Bide

Arratera igotzeko antzina erabiltzen zen bideari deitzen diogu Arrate Bide; hain zuzen ere, Legarretik gora doan errepideari eta albo bietan dauden lokal eta etxebizitzek betetzen duten tokia. Barianteari esker Arratera joateko gutxiago erabiltzen bada ere, oraindik erabili daiteke bertara igotzeko. Azkenaldian bertan egindako etxebizitza berrieekin ingurua aldatuta dago.

**Pegora kopurua: 25**



## Artegieta

Amaña auzoko kale hau Ziriako Agirre kalearekiko paraleloa da eta Bustinduitarren eta Tiburtzio Anitua kaleekin bat egiten du. Pegora gutxi izan arren, bertako aldapa ondo ezagutzen dute hango eskolara edo elizara joaten direnek. Han inguruan egon zen izen bereko baserri bat, baina gaur egun desagertuta dago.

**Pegora kopurua: 6**





## Asola-Igartza

Amaña auzoko kaleetako bati izena ematen dio Asola-Igartza edo Asoliartzak, baina aurretik Mandiola bailarako baserri baten izena izan zen. Hain zuzen ere, Asola-Igartza baserrian jaiotakoak dira Miguel Gallastegi pelotari txapelduna eta Justo Gallastegi harrijasotzaile ezaguna.

**Pegora kopurua: 8**



## Asua-Erreka

Barakaldo kalearekin perpendikularrean dagoen kaleko zenbaki bikoiti zein bakoitietan lantegiak dira jaun eta jabe. Sarrera berezia izan zuen, kalera daraman tunelaren fatxada orain urte batzuk kolore biziz margotu baitzuten. Tallarra gaztetxea ere egon zen bertan.

**Pegora kopurua: 3**



### Azitain Bide

Azitain Bide kalea, aldameneko jatetxea, inguruko etxeak eta lantegi txikiak hartzen ditu. Bizilagun eta pegora gutxi izanda ere, garrantzi handiko ondarea dago bertan: XIV. mende inguruko Kristoren irudia, gurutzean eta bizar barik. Munduan ezaugarri horiek dituzten beste hiru irudi baino ez dira ezagutzen.

**Pegora kopurua: 6**



### Barakaldo kalea

Barrena kaletik gora, Urkizu aldera doan kalea da Barakaldo. Laburra izanda ere, erdialdera bidegurutzea dauka Asua-Errekarekin eta, parketxoaren aldamenean, Urkizu eskolarako sarreretako bat hartzen du.

**Pegora kopurua: 20**



## Barrena

Bertan bizi diren lagun kopuruari begira, handienetakoa da behekaldeko kale hau. Karmen kaletik behera, N-634 errepideari jarraituta Azitaineraino doan kaleak hainbat lantegi batzen ditu, besteak beste, pegora bakoitien alde handi bana hartzen duten Gabilondo eta Ayra-Durex izan zena.

**Pegora kopurua: 32**



## Barria Plaza

Edo Plaza Barria, San Andres elizaren pareko kalea da, Calbeton eta Bidebarrieta bitartean dagoena. Txikia izanda ere, historian pisu handia izan zuten: Komentzioko tropek 1794an herriari su eman ziotenean, orduko Plaza Nueva edo Konstituziokoan udaletxe berria egitea erabaki zuten. 1899an eramán zuten udala Untzagara.

**Pegora kopurua: 4**





## Bidebarrieta

San Andres eliza inguruan hasi eta Urkizuraino doan kaleak herriaren bizkarrezurra osatzen duela esan daiteke, eta mendeetan jatorrizko izenari eutsi dio. Kaleak eman dituen seme ezagunen artean Karlos Elgezua eskulturagilea aipatu behar da, 1898ko azaroaren 3an "Pedro Martingua" izenez ezaguna zen etxean jaioa, Arikitzaneko zubi aldamenean.

**Pegora kopurua: 46**



## Birjiñape

San Andres elizaren aldamenean, Toribio Etxebarria kalea Calbetonekin eskailera bitartez lotzen dituen kaleak historia luzea dauka. Izan ere, gaur egun desagertuta dauden Arraindegia, Barrenkale eta Piparkale (Ifarkale) kaleekin batera, Birjiñapek gerra aurreko kale-zerrenda osatzen zuen-eta.

**Pegora kopurua: 1**



### Bista Eder

Gaur egun Bista Eder izenarekin ezagutzen dugun kalea, Eibarko Txikito eta Errekatxu kaleen tartean dagoena, aurretik Vista Alegre zen. Bitxikeria modura, Alfa enpresak, 1925ean armak egiteari laga eta josteko makinak egiteari ekin zionean, kale horretan izan zuen lehen tailerra.

**Pegora kopurua: 15**



### Bittor Sarasketa

Sasoi batean Grabadores izena izan zuen kalea Urkizu kaletik hasi eta Estaziñoraino doa. Bittor Sarasketa industria-gizon ezagunak kale horretan izan zuen tailerra eta hura gogoratzeko aldatu zioten izena. Azpiri baserrian 1864an jaioa, oso gaztetan hasi zen armagintzan eta onenatarikoa izatera ailegatu zen. Lantegian bertan armen probategi berezia ipini zuen eta Alfontso XIII. arekin hartueman izan zuen.

**Pegora kopurua: 8**



## Blas Etxebarria

Pagaegi kaletik Errealgo merkatu plaza egon zeneko tokiraino doan kalea da eta, 1979an izena aldatu arte, Merkatu kalea izena zuen. Blas Etxebarria 1892an jaio zen eta, Banco de San Sebastian zelakoan zuzendari kargua betetzen zuela aprobetxatuta, herriko industriari bultzada handia eman zion. Horrez gain, euskaltzale hau, gerora Kerizpe elkartearen sortuko zuen koadrilako kidea zen.

**Pegora kopurua: 3**



## Bolingua

Izen bereko baserriak ematen dio izena Errekatzutik gora doan kaleari. Egoibarra batzordeak jasota duenez, Bolingoa / Bolingua (Kiñarra) baserriaren inguruko lehen aipamena 1800. urtekoa da. XX. mendearen hasieran hirutan banatzen zen baserria eta 1925eko hiru ugazabak Pedro Ubera, Juan Oiarzun eta Jose Alzelai ziren. Gerora, baserria bitan banatuta geratu zen.

**Pegora kopurua: 4**





## Bustinduitarren

Amaña auzoan dago Bustinduitarren kalea, Tiburtzio Anitua eta Asola-Igartza kaleen artean. Kaleari izena ematen dion abizena Eibarko armagintzari lotuta dago erabat eta, historian atzera eginez, XVIII. mendera arte joan behar da, Agustin Bustinduiren sasoiraino. Atzetik etorriko ziren belaunaldiek armagin ofizioarekin jarraitu zuten eta batzuk Eibarko alkate izatera ailegatu ziren.

**Pegora kopurua: 14**



## Egigurentarren

Egigurentarren kalea gure herriko historian sarritan aurkitzen dugun abizenari zor diogu, baina kasu honetan XVII. eta XVIII. mendeetan bizitako musikoei eskainitako kalea da: lehena Andres izan zen (San Andres elizako organujolea 1666. eta 1667. urteetan). Familia bereko beste musiko famatua Fernando Egiguren izan zen, gerora frantziskotar egin zen musikaria, 1743an jaiotakoa.

**Pegora kopurua: 11**



### Ego-Gain

Herriko beste hainbat kalerekin egindakoaren haritik, 70eko hamarkadaz geroztik deitzen da Ego-Gain aurretik O'Donnell jeneral espainiarraren izena zeraman kalea. Ego erreka estaltzean sortutako kaleak aparteko garrantzia hartu du, Untzaga Plaza hotela bertan egoteaz gain, autobus geltoki nagusia ere bertan dago-eta.

**Pegora kopurua: 13**



### Eguzki-Begi

Barrena kalearekiko paraleloan, parketxoaren pareko kaletik gora doan kaleak du izen hori. Eibarko Hiztegian jasota dagoenez, eguzkiak bete-betea ematen duen tokiari esaten zaio "eguzki-begi".

**Pegora kopurua: 2**



### Eibarko Txikito

Txaltxa Zelai (sasoi bateko Frontoi Zaharra) eta Bista Eder artean dagoen kaleak Eibarko Txikito gaitzizeneko pelotariaren izena darama. Indalezio Sarasketa Durangon jaio zen 1860an, baina oso gazte zela Eibarrera, Azpiri baserrira, etorri zen bizi izatera eta 16 urte bete orduko hasi zen pilotan. Hortik aurrera, garaipenak pilotatzen joan zen, espezialitate guztietan txapeldun izanda.

**Pegora kopurua: 4**



### Elgeta-kale

Bista Eder kaletik kanposanturako bidea hartzeko eskaileren gainean irakur daiteke pegora bakarrak osatzen duen Elgeta kalearen izena. Kale txikia izanda ere, gure herriko kantutegira joz gero, "Eibar tiene su entrada" abestian Elgeta-kaleari erreferentzia egiten zaiola ikus dezakegu.

**Pegora kopurua: 1**





### Errebal kalea

Ibarkurutzen hasi eta Julian Etxeberriaraino doan kalea da Errebal. Kalearen zati handi bat merkatu plaza hartu zuen eraikinak betetzen zuen, eraitsi zutenera arte. Kaleak, baina, aurretik beste izen bat izan zuen: "Maria Angela". Antzaenez, 1883an hil zen M<sup>a</sup> Angela Agirregomezkortari zor zion izena: andra diruduna izan zen eta testamentuan 1.500 pezeta laga zizkien liberalei, banketea egin zezaten. Esker ona adierazteko eman ei zioten bere izena kaleari.

**Pegora kopurua: 20**



### Errekatxu kalea

Errekatxu kalea Bista Eder kaleruntz behera doa batetik eta, bestetik, Arane kalera. Azken Hirigintza Antolamendurako Plan Nagusiaren arabera, inguru guztia birgaitzeko asmoei jarraituta hor dauden etxeetako batzuk ordenazioz kanpo geratuko lirateke, baina oraingoz ez da aldaketarik izan kalean.

**Pegora kopurua: 17**



## Estaziño

Kaleari izena ematen dio tren geltokia lehenengoz berritu zela 100 urte bete ziren 2009ko abenduan eta, izena ez ezik, bestelako bizitasuna eman dio trenak kaleari: besteak beste, San Juan jaien hasiera ofizialari ekiten dion Lizarrako dultzaineroei ongietorria emateko ekitaldiak trenarekin lotura zuzen-zuzena dauka.

**Pegora kopurua: 17**



## Eulojio Garate

Kanposantuaren beheko aldean, Bista Eder kaletik berehala dago izena industria-gizon horri zor dion kalea. Eibartarrek sasoi eta premietara egokitzeko gaitasunaren adibidetzat har daiteke, armagintzan ziharduen GAC bizikleta fabrika bihurtzeko asmoa berea izan zen-eta; Frantzian bisitatutako fabriketan ikusitako batzuk martxan ipinita buelta eman zion tailerrari. Errepublikara sasoian zinegotzia izan zen.

**Pegora kopurua: 2**



## Fermin Calbeton

Gure herriari bultzada handia eman zion politikaria Donostian jaio zen eta ez zen sekula Eibarren bizi izan. 1853an jaioa, Zuzenbidea ikasi zuen Madrilan. Irakasle hasi zen, baina 1889an Donostian diputatu hautatu zuten, 1898an Gipuzkoatik senadore eta 1910ean Canalejasen gobernuan Sustapen Ministeriora ailegatu zen. Ekarpenen artean, Armeria Eskolaren aldeko beharra aipatu behar da.

**Pegora kopurua: 20**



## Fray Martin Mallea

San Kristobalen dago Fray Martin Inazio de Loiola zenari eskainitako kalea. XVI. mendearen erdialdean Eibarren jaio zen Loiolako santuaren iloba zen frantziskotarra. Gaztetatik misioetara joateko gogoia izan zuen eta Ameriketara eta Txinan egon zen, besteak beste. Lan handia egin zuen Buenos Airesen, eta Clemente VIII.a Aita Santuak Asunciongo apezpiku izendatu zuen.

**Pegora kopurua: 6**





## Gisastu Bide

Urkizutik Txontarako sarreraren ezkerreko aldean dagoen kaleak darama Gisastu Bide izena. Gisastu izenari buruzko erreferentzia Juan San Martinen "Eibar eta Elgetako Toponomastika" liburuan jasota dator, XVIII. eta XIX. mendeetaraino atzera egin eta baserri-izen modura.

**Pegora kopurua: 1**



## Ibargain

Pagaegi igota, eskumara dagoen kaleari esaten diogu Ibargain. Eibarko baserrien artean ere aurkituko dugu Ibargaiñ izenekoaren gaineko aipamenik: Mandiola bailarako baserri horren gaineko idatzirik zaharrena 1780koa da, ate gainean 1705 irakurri badaiteke ere, eta izen bereko dorretxearen babespean jaiotako baserria da.

**Pegora kopurua: 2**



## Ibarkurutze

Izen bereko iturriaren inguruan jasotako etxeek osatzen dute kalea. 1944ko San Juan egunean inauguratu zuten; lehenagotik, 1892an bazegoen iturri bat han, baina 1944an Udalak iturria egiteko proiektua eraman zuen aurrera eta inauguraziotik egun batzuetara, ekainaren 28an, iturriari gurutze bat gehitzea erabaki zuten.

**Pegora kopurua: 9**



## Ifar kale

San Andres elizaren parean, aldapan gora Portaleraino garamatzen kalea historia luzea duen horietako bat dugu, aintzinako Eibarko adibide garbia. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, inguruko beste kale askorekin gertatu zen bezala, 1937an izandako bonbardaketak eta atzetik etorri zen suak txiki-txiki eginda laga zutela kalea eta, beraz, ostean berriz jaso behar izan zutela.

**Pegora kopurua: 5**



## Indalecio Ojanguren

Ipuruako dorreen parke inguruari izena ematen dion eibartarrak bere zaletasun maiteenak batu zituen: mendizaletasuna eta argazkilaritza. 1887an jaioa, 26 urterekin argazki estudioa ipini zuen eta bizitza osoan Euskal Herriko hamaika txokori ateratako erretratuek balio historiko handiko artxiboa osatzen dute, XX. mende hasierako Eibar ezagutzeko oinarrizko testigantza.

**Pegora kopurua: 2**



## Iparragirre

Urkizuko parkea pasatuta, eskumara igotzen den errepidetik gora doan kalea da Iparragirre. Saratsuegin etxe berriak egitearekin batera, azkenaldian aldaketa handia izan du kaleak, batez ere orain dela gutxi egindako errepidearekin lotutakoak.

**Pegora kopurua: 8**





## Ipurua

Azaleran bereziki txikia ez den arren, Ipurua kalean hiru pegora baino ez dago eta horietako bat kalearen izen berbera duen foball zelaiari dagokio. Hala ere, kalea izendatzeaz gain, Ipurua izena erabiltzen da inguru guztiarentzat, hau da, inguruko kale eta auzoentzat.

**Pegora kopurua: 3**



## Isasi

Kalearen izen berbera daraman Isasiko jauregia gure artean Markeskua izenarekin ezaguna da. Bertan bizi izan ziren Martin Lopez de Isasi XVI. mendeko merkataria eta haren emaztea izan zen Domenja Orbea. Mendek igarota ere, Untzagaraino doan kaleak jauregiko ugazabaren abizena gorde du.

**Pegora kopurua: 29**



## Jardiñeta

Urteetan izenari eutsi dion kalean, besteak beste, Ignazio Zuloaga Institutua topatzen dugu eta sasoi batean La Merced mojen eskola ere han egon zen. Herriaren goiko aldean egonda, menditik gertu, Muguruza medikuak bultzatuta biriketako gaitzak sendatzeko ospitala egon zen zabalik Jardiñetan.

**Pegora kopurua: 35**



## Jazinto Olabe plaza

Romualdo Galdos kalearen aldamenean, Ipurua auzoan dago Jazinto Olaberri eskainitako plaza. Ignazio Zuloagarekin batera, herriak emandako margolarien artean ezagunetakoa izan zen Olabe. Arraindikale kalean 1877an jaioa, 9 urterekin Argentinara joan zen eta han hasi zituen dibujo ikasketak. Eibarko Dibujoko Akademiako zuzendaria izan zen eta, besteak beste, Karlos Elgezua eta Lukas Alberdi izan zituen ikasle.

**Pegora kopurua: 6**



### Jose Antonio Gisasola

Isasi kalearen atzeko aldean Egiurentarrene-raino doan kaleak du izen hori. Aginaga auzoan jaioa, Argentinan eman zuen ia bizitza osoa eta han aberastu egin zen. Seme-alabarik ez izatean, bere diruaren zati bat gure herriaren mesedetan erabili zuen: Isasiko fraideek eskola eraikitzea erabaki zutenean berak eman zien behar zuten diruaren zati bat eta eskola jasotzeko terrenoak.

**Pegora kopurua: 2**



### Jose Antonio Iturriotz

Urkin, kanposantu aldameneko kaleak 17 urtez Eibarko alkate edo alkateorde izandakoari zor dio izena. Hiru ekimen aipagarri aitortu zaizkio: Untzagako udaletxea egitea, Eibarko Plan Orokorra argitaratzea eta Legarren Ospital berria jasotzea. Etxeetaraino ura eramatea ere bera alkate zela lortu zen. Burilista fina, 64 urterekin beharreen zegoela hil zen, 1916ko otsailaren 23an.

**Pegora kopurua: 3**






## Juan Antonio Mogel

Gerra ondoren foball zelaiaren ostean egindako etxeek osatzen duten auzoa da. Juan Antonio Mogel XVIII. mendeko idazleari zor dio izena. Gurasoak markinarrak zituen, baina aita sendagilea zen eta Juan Antonio Eibarren jaio zen. Apaiz-filologoaren lanik ezagunena Peru Abarka dugu, Mogelen sasoiko armagintza eta Euskal Herriko ohiturak ezagutzeko ezinbesteko nobela.

**Pegora kopurua: 21**



## Juan Gisasola

Juan Bautista Gisasola musikagileari eskainitako kalea Untzaga plazatik hasi eta Elgetarako bidearen hasieraraino, Sostotarreneraino doa. Musika giroko familian jaio zen 1885ean eta 12 urterekin Salamancako seminariora abiatu zen; 14 urterekin hango abesbatza zuzentzen zuen eta 16 urterekin abade ikasketak laga eta Eibarrera bueltatu zen. Obra ez oso luzea, baina kalitate handikoa laga zuen.

**Pegora kopurua: 12**



### Julian Etxebarria

San Juan kalean hasi eta Bidebarrietaraino doa eta gure herriko pertsonaia garrantzitsu bati zor dio izena. 1875ean jaioa, bestek beste Armagintza Eskolaren sorreran hartu zuen parte eta bertako zuzendaria izan zen luzaroan. Karlos Elgezuak egindako bere irudia Armeria Eskolako atarian dago. Anaia Bonifaziorekin batera, STAR pistola automatikoaren patentea lortu zuen.

**Pegora kopurua: 19**



### Karlos Elgezua

Amaña auzoan, Ziriako Agirre kalearen goiko aldean dago Karlos Elgezua eskultoreari eskainitako kalea. 1898an Pedro Martinen etxean, Arikitzaneko zubiaren aldamenean, jaio zen eta haurtzarotik ezagutu zuen zur-lanketa, aita arotza zuen-eta. Aitari laguntzen beharrea zegoela, Billbora joan zen soldadutzara eta han hasi zen eskulturak egiten, Escuela de Artes y Oficios zelakoan.

**Pegora kopurua: 11**



### Karmen

Barrena eta Urkizu batzen ditu Karmen kaleak, Elgoibarko norantzan behera goazela. Kalea bereziki luzea izan barik ere, bertan dauden eraikinetako bik aipamen berezia behar dute: zenbaki bakoitien aldean Urkizu herri ikastetxea daukagu eta pare-parean, bikoitietan, Karmengo Amaren eliza (Karmelitak).

**Pegora kopurua: 10**



### Legarre

Legarre kalea Torrekua eta Arrate-Bide tartean dagoena da eta izen horrekin deitu izan zaio, kaleari ez eze, baita haren inguruari ere, auzoari. Gaur egun desagertuta badago ere, sasoi batean Legarre izeneko baserria egon zen Mandiola bailaran.

**Pegora kopurua: 10**





### Legarre-Gain

Izenak aditzera ondo ematen duen moduan, Legarre kalearen gainean doanari deitzen zaio. Bertara ailegatzeko igo beharreko eskailerak ez dira gutxi, baina goian oso bista politak daude.

**Pegora kopurua: 22**



### Makazkua

Orain dela hiru bat hamarkada, Egigurentarren etxeak egiteko bota zuten baserriari zor dio izena kaleak. Astelena frontoiaren atzeko aldean zegoen baserriaren gainean zeozer jasota dagoen agiri zaharrena 1782koa da, eta azken gizaldian bertan bizi zirenak Abontza baserritik joandakoak zirenez, izen horrekin ezagunagoa izan da.

**Pegora kopurua: 1**



## Maltzaga auzoa

Sasoi batean gurutze-bide garrantzitsua izan zenak indarra galdu du gaur egun. Susaeta etxea, lantegi bat eta tren-estazioa besterik ez dago bertan. Delteco enpresak ere Zumaiara aldatu berri du bere egoitza. Bertako Sagartietia jauregia, ondare historikoa izan arren, gero eta egoera kaskarragoan dago.

**Pegora kopurua: 1**



## Matsaria

Eibarko antzinako estiloari jarraituta, etxeak eta tailerrak elkarrekin hartzen dituen kaleetako bat da Matsaria izenekoa. Mandiola bailarako erreketako bat eta han inguruan egon zen baserrietako bat ere Matsaria izenarekin ezagutu ditugu.

**Pegora kopurua: 7**



## Mekola

San Juan kalearen atzeko partean dagoen kaleari esaten diogu Mekola eta izen berarekin ezagutu zen 1954. urtean etxeak egiteko bota zen Mekola Etxeberri baserria ere. "Eibarko Basarrixak" liburuak dioenez, 1573an ospital zaharraren aldamenean Mecolalde de Suso izeneko etxe bat zegoen eta izen bera agertzen da 1833ko agirietan.

**Pegora kopurua: 9**



## Miguel Aginaga

Bista Eder eta Eibarko Txikito kaleen arteko bidegurutzean hasi eta kanposanturaino doan kale aldapatsua da, eta 1634an gure herrian jaiotako militarari zor dio izena. Ameriketara egin zuen bere karreraren zatirik handiena, gaur egun Kolonbiara hartzen duen lurraldean. Antioquia Departamentuko Gobernadore izan zen eta Candelaria hiriaren fundatzaile izateagatik egin zen ezaguna.

**Pegora kopurua: 4**





## Milaflores

Arraterako bidean, goruntz goazela ezkerretara, Itzio parean hasten da izen hori daraman kalea, benetan malkartsua den aldapan bertan. Mandiola baserri auzoko baserri bietan dauka jatorria izenak: lehenengoz XVIII. gizaldian aipatzen den Milaflores Goikoan (1747an Julian de Etxabarria han bizi zela “Billaflores”) eta askoz berriagoa den Miraflores Behekoan.

**Pegora kopurua: 14**



## Murrategi

Eibarko XIV-XVI. gizaldietako toponimian jasota dator Murrategi zubiaren gaineko aipamena: Unzueta familiaren errostatik Azitaingo ermitaraino, kanala salbatzeko ezinbestekoa ei zan han inguruko kaleari izena ematen dion zubia.

**Pegora kopurua: 6**



## Mutiola

Sasoï batean han egon zen Mutiola baserriari zor dio izena kaleak, T. Etxebarriaren Lexikoian jasotakoaren arabera. Urola, Aixola, Mandiola eta Gisolarekin lotura ei du Sansabururako bidean zegoen baserriaren izenak.

Pegora kopurua: 5



## Muzategi

Errebaletik Jardinetara joateko aldapadari deitzen diogu horrela eta Eibarko kantutegian jasota dator, "Eibar tiene su entrada" abestian: "La calle Muzategi, otro punto señorial / donde vive `Toldonio´ con su familia real".


Pegora kopurua: 5



## Otaola Hiribidea

Markeskua eta Bizkaiko muga bitarteko kaleak, beste askoren modura, baserri bati zor dio izena. Hain zuzen ere, Ermuko mugan zegoen Otaola Bazterra, 1965ean Unibertsitate Laborala jasotzeko bota zuten arte. Otaola Erdikoa / Otolerdi (Kiñarra) izeneko baserria ere badago.

**Pegora kopurua: 5**



## Pagaegi

Estaziño kalea amaituta, eskumara aldapan gora doan kaleari deitzen diogu Pagaegi edo Pagei. Mandiola auzoko hiru baserriri ere eman diete izena (Pagaegi, Pagaegi Abeletxe eta Pagaegi Korta), baina Pagaegi izeneko ingurua askoz lehenagotik zen ezaguna Eibarren (1498).

**Pegora kopurua: 4**





### Polonia Etxeberria

Polonia Etxeberria Urki auzoan dago, Polonia edo Apolonia Etxeberriari eskainitako kalea eta herriko kalerik altuenetakoa da. Industriaren munduan oso ezaguna zen familian jaioa eta hezia, emakume honi irakaskuntza alorretik datorkio ospea, neskentzat lehenengo eskola sortu zenean han egon zen-eta, Gumersinda López de Gereñuri laguntzen, eta 1889an eskolaren ardura bere gain hartu zuen.

**Pegora kopurua: 24**



### Romualdo Galdos

Eibarren jaiotako jesuita eta irakasleari zor dio izena Ipurua auzoko kaleak. Erromako Unibertsitate Gregorianoan urte askotan irakasle egon zen; baina, oso gizon polifazetikoa zenez, beste kontu batzuetan ere jardun zuen: idazlea, bertsolaria, musikaria eta euskaltzale amorratua izan zen. 1926an Eibarko Seme Ospetsu izendatu zuen Udalak. 1953an hil zen, Eibarren.

**Pegora kopurua: 20**



### San Agustin zeharra

Errebal eta Bidebarrieta, kale biak lotzeko zeharrak darama San Agustin izena, hain zuzen ere, merkatu plazaren eraikina eraustean geratu den hutsune parean dagoen kale laburrak. Izena betidanik horrela euki duen arren, orain ez asko aldatu zioten, lurra eta bestelakoak berriztuta.

**Pegora kopurua: 5**



### San Andres pasealekua

Herrian ditugun patroï bietako bati eskainitako kalea San Juani eskainitakoa amaitzen den tokian hasi eta Barrenengua aldean amaitzen da. Azken urteotan zatirik haundiena asko aldatu da, ia kale osoa hartzen zuen Alfa fabrika eraitsi eta urbanizazio berria jasotzean.

**Pegora kopurua: 2**



### San Juan

Herriko patrioietako bati eskainitako kalea; San Andres da bestea. San Juan kalea Toribio Etxebarria kalearekiko paraleloan, atzeko partetik doana da, anbulatorioan hasi eta udaletxeraino bitartekoa.

Pegora kopurua: 11



### San Kristobal

Txoferrak eta kamiolariak egon eta bizi ziren sasoi batean kale horretan, eta horregatik hartu zuen kaleak txoferren patrioaren izena. Orain gutxira arte Paziano Arosa deitzen zen, herriaren alde jardundako Eibarko gizon zintzo eta langilearen omenez.

Pegora kopurua: 24





## Sansaburu

Beste hainbat kalerekin gertatutakoaren bidetik, hemen ere Sansaburu izenak gerra ostean herria handitzen hasi zenean desagertutako baserria gogoratzen digu.

**Pegora kopurua: 6**



## Santaiñes

Mutur batean Ipurua kiroldegia eta bestean foball zelaia ditu kaleak.

San Pio X eliza eta mojen komentua egon dira bertan orain dela gutxira arte.

Pareko aldean, berriz, etxeak daude.

**Pegora kopurua: 13**



## Saratsuegi (Sautxi)

Iparragirre kalea baino gorago eraikitako etxeak daude Saratsuegin eta kaleak han inguruko baserri baten izena dauka. Sarasuegi (Sautsi Hemetikua) baserriaren lehenengo aipamena 1747. urtekoa da eta orduan bertan bizi zen Joseph de Loiola. Etxe parean hiltegi moduan erabiltzen zen txabola txiki bat izan zuen.

**Pegora kopurua: 7**



## Sostotarren

Sasoi batean Elgeta Bidea zen kalea zati bitan erdibitu zuten 1979an eta musikarekin zerikusia izan zuten pertsonaiei eskaini zieten; horrela, Ubitxako errebueltatik gora doan zatia Sostotarren izatera pasatu zen. Sostotarrak anaia bi izan ziren: Andres eta Manuel organujole eta konpositoreak, biak ere frantziskotarrak. Kaleak ez ezik, herriko abesbatzak ere euren izena du.

**Pegora kopurua: 17**



### Tiburzio Anitua

1848an jaio zen Amañako kaleari izena ematen dion pertsonaia. Grabadore ofizioa ikasita, horretan jardun zuen Ameriketara joan aurretik. Barranquillan (Kolonbia) armeria handi baten buru izan zen eta, urruti egonda ere, beti izan zuen harreman estua sorterriarekin. Testamentuan ondasun guztiak Ospitalari emateko nahia jaso zuen eta bere nahia bete egin zen, 1938an 90 urterekin atzerrian hil eta gero.

**Pegora kopurua: 29**



### Toribio Etxebarria

1887an jaio zen eibartarrari zor dio izena. Sindikalista eta idazlea, Alfa-ren sorkuntzan parte hartu zuen; II. Errepublika aldarrikatu zuenatariko bat izan zen. Gerra amaituta, heriotz zigorretik ihesi, Caracaserara (Venezuela) erbesteratu zen. 1987an Udalak Hiriko Seme Kutun izendatu zuen.

**Pegora kopurua: 24**





### Txaltxa-Zelai

Kaleak zein bere azpiko parkeak gaur egun desagertuta dagoen baserriari zor diote izena. Isasin, udaletxetik 100 metrora egon zen baserria, Txaltxa jatetxearen atzeko partean, eta lursailak Mekolaraino ailegatzan ziren.

**Pegora kopurua: 15**



### Txirio kale

San Andres elizaren inguruan jaiotako gure herriak Erdi Aroan izan zituen hiru kale nagusietako bat izan zen gaur egun Txirio kale modura ezagutzen duguna (lehenago Txirio kale), Barrenkale eta Elgeta kaleekin batera.

**Pegora kopurua: 5**



## Txonta

Urkizu pasealekutik eskumarako bideari jarraituta topatzen dugun kaleak auzoa jasotzeko orduan eraitsitako baserrietako bati zor dio izena eta, besteak beste, Toribioren “Lexikoiak” jasotzen du haren gaineko aipamena (“Aspaldi geldirik zan Txonta-ko errobera aundixa”).

Pegora kopurua: 25



## Ubitxa

Ego erreka-ren hegoaldean dagoen Otaola edo Kiñarra auzoan desagertutako baserrietako bati zor dio izena Elgetarako bidetik gora (Juan Gisasola kaletik), errebueltan dagoen kaleak.

Pegora kopurua: 21



## Untzaga plaza

Sasoi batzuetan beste izen batzuk izan baditu ere, antzinatik esan zaio Untzaga udaletxe pareko plazari. J. San Martinek “Antzinako Eibar” lanean dioenez, 1664ko dokumentuetan San Juan Bautista eguneko prozesioa San Andres parrokiatik “Ulsaga” (Untzaga) plazan zegoen San Juan ermitaraino egiten zen.

**Pegora kopurua: 8**



## Urki

Kale honen izena Urkidi berbaren laburdura da berez eta urki motako zuhaitz multzoari erreferentzia zuzena egiten dio. Kalearen izena bertan dagoen kanposantuaren gainean jardutean ere erabili ohi dute askok.

**Pegora kopurua: 27**





### Urki Kurutzekua

Babes Ofizialeko etheen promozioarekin haunditu den kaleari izen bereko baserriak ematen dio izena. Baserriaren atarian, gainera, orain dela urte gutxi zahar-berritutako harrizko gurutzea ere ikusi daiteke.

**Pegora kopurua: 5**



### Urkizu pasealekua

Hiri toponimiari begira jarrita, gutxienez XIX. mende hasieratik Urkuzu zein Urkizu, forma bietan aurkitu genezake izen bereko parkearen albo biak hartzen dituen kalearen izena.

**Pegora kopurua: 24**



## Urtzaile

Gaur egun euskerazko izenarekin ezagutzen dugun kalea "Fundidores" deitu zen aurretik, eta oraindik ere askok horrela esaten diote. Gure herrian sasoi batean garrantzitsuak izandako ofizioetako bat gogoan, izenak kalearen hasieran dagoen Aurrera eraikinak 1940ko hamarkadan hartu zuen fundizioari egiten dio erreferentzia.

**Pegora kopurua: 6**



## Wenzeslao Orbea

Sasoi batean Amaña zaharra izandakoaren gaineko kaleak darama Wenzeslao Orbearen izena. Eibartar peto-petoa, Urkizuko Orbeatarren familiakoa zen abokatu hau eta luzaroan Foru Aldundiko letratu gisa egin zuen beharra. Gipuzkoako Aurrezki Kutxako sortzaileetako bat ere izan zen eta politikarako tartea ere hartu zuen, Madrilgo Gorteetara ailegateraino. Herriko industriari bultzada eman zion.

**Pegora kopurua: 20**



### Zezenbide

Isasi zein Juan Gisasola kaleetatik zezen plazaraino igotzen duen kalea da Zezenbide eta, kalearen izenak argi lagatzen duen moduan, bertaraino zezenak egin beharreko ibilbideari erreferentzia zuzen-zuzena egiten dio kalearen izenak.

**Pegora kopurua: 7**



### Ziriako Agirre

Kale Izendegi Ofizialean Bizente eta Ziriako Agirreren izenarekin jasota dago. Bizente eta Ziriako aita-semeak ospe handiko sendagileak izan ziren. Bizente 1829an jaio zen eta, sendagilea ez ezik, filologiarekiko zaletasuna ere bazuen. Semeak aitaren ogibideari jarraitu zion eta, sasoiko tuberkulosiarekin kezkatuta, osasundegia zabaldu zuen San Andres Egoitza dagoen tokian.

**Pegora kopurua: 13**





## Zuloagatarren

San Andres eliza inguruko kaleak arte munduan gure herriak inoiz eman duen familia ospetsuenari zor dio izena. Eibarren hiru izan dira Zuloagatar esanguratsuenak: Eusebio, Plazido eta Inazio (lehenengo biak damaskinatuan maisuak; hirugarrena, margolari ezaguna). 1940an Madrilen hildako margolariak Eibarko herriaren enkarguz Karlos Elgezuak egindako eskultura dauka eliza pareko parkean eta institutuak ere bere izena darama.

**Pegora kopurua: 5**

## PEGORARIK GABEKO KALEAK



### Argatxa Jardñak

Ipurua kiroldegiaren parean, Santaines kalearekin bat egiten duten lorategi inguruari eman zioten izen hori. Aldamenean etxe ugari badaude ere, Argatxak pegora bi baino ez dauzka, osasun zentroa eta eskola; horregatik ez dago inor bertan erroldatuta. Aurretik Justo Oriaren, 1941-1949 bitartean Eibarko alkate izandakoaren, izena izan zuen kaleak.

### Barrenengua kalea

Azken urteotan El Corte Inglés berriaren beharrekin lotutako itxuraldaketa izan duen arren, Barrenengua kaleak ez du pegora bakarria hartzen eta, ondorioz, ez dago inor bertan erroldatuta. Markeskua jauregitik behera, Amaña auzora darama errepideak.



### Ibarbea zeharra

Gutxi izan arren, badira kale honen moduan pegorarik ez duten batzuk eta, ondorioz, bertan inor bizi ez denez, erroldatutako biztanlerik ere ez dutenak. Kale laburra da eta Errebaletik Bidebarrietara bitarteko eskailerak hartzen ditu, sasoi batean Rialto zinemaren eta gaur egun merkatu plazaren eraikina denaren alboan.

## PEGORARIK GABEKO KALEAK



### Labaderokua

Unzaga Plaza (lehengo Arrate) hotelaren eta Batzoki berriaren bitartean dagoen Isasirako pasabideari ipinitako izenak beste sasoi bateko kontuei egiten die erreferentzia. Izan ere, XIX. mendeko Eibarren, tailerretan zikindutako jantziak garbitzeko labaderuak egin zituzten, Ego errekaren ibilbideari jarraituta eta, kale honetan ez ezik, Asua-Errekan, Bidebarrietan, Ardantzan, Ubitxan, Matsarian, Aldatzen eta Arraindikalen ere egon ziren, besteak beste.

### Merkatu kalea

Blas Etxeberria kaletik behera, Errebal kalearekin bat egiten duen kaleari esaten diogu Merkatu kalea, orain dela gutxira arte aldamenean zegoen Merkatu Plaza gogoan. Eraikin bakarrak betetzen du kalearen alboetako bat: Coliseo antzokiak. Beste aldean Errebalgo eraikin berria egiteko obrekin dihardute gaur egun.



### Torrekua kalea

Osakidetzako osasun zentroa izandakoak eta inguruak, Alfa lantegi berriak hartzen duen zatia barne, daramate Torrekua izena, XX. gizaldiko lehenengo erdian desagertutako etxea gogoan. Zugastiren "Formen dantza" eskultura dagoen tokiari ere horrela esaten zaio, han inguruan desagertutako baserri eta zubiaren izena "Kakalardokua" bazen ere.





### Aginaga auzoa

Urko mendiaren iparraldean, Markina Etxebarri eta Mallabiarekin egiten du muga. 'Eibarko basarriak' (Ego Ibarra) liburuak jasotzen duenez, 27 baserri izan zituen, baina batzuk jausi egin dira. San Miguel parrokia, San Roman basiliza eta San Ildefonso santutxua eta Zubitza (Zubierrota) eta Errotatxo (Agiñaga-Errota) ere bertan daude.

**Pegora kopurua: 25**

### Arrate auzoa

Eltzartzagatik hasi eta Saturixoraino doazen lur-sailek osatzen dute bailara, Zubiaga eta Argiano errekaetako eta Arramendi inguruko lurak barne. Ego Ibarra jasotakoaren arabera, "Arrate Ballia izango da, Agiñaga baillariakin batera, basarri eta basarritarren mundua hobetuen gorde daben auzua".

**Pegora kopurua: 33**



### Gorosta balle

Ego Ibarra batzordekoek jasota dutenari jarraituta, sasoi batean Mandiola eta Gorosta bailarak Akondia izeneko auzo bakarra osatzen zuten; baina, azken aldirian, bitan banatuta daude eta Gorosta Ballea izen bereko errekaen arroan dauden lur eta baserriak dituzte eta Akondia eta Garagoitxi gainek osatzen dute. Salbuespena Mugitza aldeko baserriak dira, Gorosta arroan egonda ere Arrate Balleko parte dira-eta.

**Pegora kopurua: 37**

## BASERRI AUZOAK



### Mandiola balle

Bailara zabala da Mandiolakua. Elorreta aldetik hasi eta Azpiri baserrira arte doa eta sartaldean Gorosta bailarekin egiten du muga, baina auzo biak ondo bereiztuta daude: Santa Kurutz ermitatik Matsarira doan bide zaharra da muga. Gaur egun 29 baserri daude bailaran, baina beste sasoi batean orain desagertuta dauden beste 16 baserri ere egon ziren auzoan.

**Pegora kopurua: 40**

### Otaola-Kiñarraga

Bost baserri auzoen artean haundiena eta gutxien ezagutzen dena da. Zaldibarrekin muga egiten duen Ibur errekatik hasi eta Soraluzeraino, Ego erreka haren hegoaldera dauden lur, erreka, mendi eta baserri guztiak hartzen ditu eta hiru zatitan berezi genezake; batean Isasitik sartalderantz dauden lurak daude eta baserri gehienak Isasiko jauregiari eta Otaola-dorreari lotuta egon dira gizaldietan; hortik auzoari Otaola/Otola izena ematea.

**Pegora kopurua: 25**







# Eibarko

# ITTURRIXAK

1991n Udaleko Ingurugiro Sailaren enkarguz egin zen Eibarko iturrien gaineko ikerketa. Herri barruko 43 iturrien zerrenda osatu zuten. Euretako asko martxan zeudela eta, gainera, gehienen egoera ona zela ikusi zuten. Erreportaje honetan agertzen diren argazkiak eta azaltzen diren datuak urte horretakoak dira.

Informazioa eta argazkiak  
Eibarko udal artxibotik jasota,  
aipatutako txostenetik.



**Abontza,**  
Makazkua kalian

Sorreria: 1948, ehun urte lehenagotik ezpondatik jasotzen zeben jatorrixa Ipuruako zelaixan eta Kantabriako boieran. Edatekua.



**Aldatze**

Sorreria: 1891, labaderuaren onduan. 1990ian barrittuta. Jatorrixa Urkoko errekastuan. Emari aldakorra / edatekua.



**Abontzako poligonua,**  
kuartel onduan

Sorreria: 1987.  
4 litro miñutuko / edatekua, sareari lotuta.



**Alfa**

Sorreria: 1885 baiño lehenago. Jatorrixa Urkoko sakanian. Emari aldakorra.



Argatxako Jardina, orduko  
Kiroiak taberna barruan

Ez da edatekua.



Ardanza

Sorreria: 1802.  
1988xan barrittuta.  
Jatorrixa Arrajolatik gertu.  
Emari aldakorra / edatekua.



Armeria, Isasi kalin

Sorreria: 1986.  
Edatekua, sareari lotuta.

Artegieta

Sorreria: 1983.  
Jatorrixa itturrixa baiño beherago.  
2 litro miñutuko / ez da edatekua.



Barria Plaza,  
San Andres elizari itsatsitta

Sorreria: 1900. 1985ian barrittuta.  
4 litro miñutuko / edatekua, sareari lotuta.





**Bidebarrieta,**  
San Andres ikastetxea

Edatekua, sareari lotuta.



**Errebal,** Muzategi eta lehengo  
Musika Konserbatorixuaren artian

Sorreria: 1949.

3 litro miñutuko / edatekua, sareari lotuta.



**Errekatxu**

Sorreria: 1930, dagan tokiko jabiak eginda.  
Jatorrixa jabiaren ortuan.  
Ez daka urik.



**Bittor Sarasketa,**  
Grabatzaillien  
kalian

4 litro miñutuko.

Edatekua, sareari lotuta.



**Errekatxu**

Sorreria: 1900.

1984an eta 1991n barrittuta.

Jatorrixa 50 metrotara.

11 litro miñutuko / ez da edatekua.





## Ibarkurutze

Sorreria: 1892, Agustin Barrenetxea lan-maisuaren eskutik (1.805 pezeta)  
Jatorrixa Txontan, Solac enpresaren atzian.  
Ez da edatekua.



## J.A. Iturrioz

Jatorrixa Unbeko zelaixan.  
Ez daka urik / ez da edatekua.



## Jardiñeta

Sorreria: 1986.  
3 litro eta erdi miñutuko / edatekua,  
sareari lotuta.



## J.A. Mogel

Sorreria: 1989.  
4 litro miñutuko / edatekua,  
sareari lotuta.



Legarre,  
Umiaren Itturrixa

Jatorrixa metro batzuetara.  
Ez da edatekua.



Legarre

Ez da edatekua.



Matsariko manantiala

Sorreria: 1901ian egindako labaderuan.  
Ez da edatekua.



Legarre,  
bialaren plazoletian

Sorreria: 1985.  
Edatekua, sareari lotuta.



Matsaria

Ez da edatekua.



**Mendizabal**, izen bereko taillarraren onduan, Ardanzan

Sorreria: 1943.  
Aspaldi Ardantzako ura deitzen jakon, labaderuaren onduan zegualako.  
Jatorrixa Urkoko sakanian.  
Ez daka urik.  
Ez da edatekua.



**Murrategi**, Azitaiñen

Sorreria: 1891.  
1989xan barrittuta.  
Jatorrixa metro batzuetara.  
Ez edatekua.



**Sakun**, Institutuaren gainian

Sorreria: 1969.  
Ez daka urik.  
Sorreria: 1969.  
Ez daka urik.



**Potosio**, izen bereko taillarraren onduan, Ubitxan

Sorreria: 1985.  
Jatorrixa Unbeko errekastuan.  
3 litro miñuturo / ez da edatekua.



Santaiñes, San Pio X. onduan

Sorreria: 1634, mojen konbentuarekin.  
1956xan barrittuta.  
Ez da edatekua.



Txomo, Urtzaile kalian

Jatorrixa Txomoko Forja izandakuaren  
lurretan.  
Ez daka urik.



Sautxi, izen bereko  
basarrixaren terrenuetan

Sorreria: 1880.  
Jatorrixa 100 metrora, zuzen jota.  
Emari aldakorra / ez edatekua.



Txonta

Sorreria: 1985, Txonta-Arane biala  
osatzeko parkian.  
4 litro miñutuko / edatekua, sareari lotuta.



Txonta

Sorreria: 1986.  
4 litro miñutuko / edatekua, sareari lotuta.





## Ubitxa

Jatorrixa Unbeko errekastuan.  
Ez da edatekua.



## Ubitxa

Sorreria: 1900.  
Barrittuta 1984an (83ko ufalak kaltetu zebelako) eta 1991n (emaria galtzen zoiako).  
Jatorrixa Unbeko maldan.



## Untzaga plaza

Sorreria: 1864, Santiago Sarasola arkitektuaren eskutik (7.256 errial).  
1962xan berrittuta.  
9 litro miñuturo / edatekua,  
sareari lotuta.



## Urki, izen bereko kalia eta Polonia Etxeberria lotzen dituan parkian

Sorreria: 1984, Urki-Ubitxa urbanizaziñua osatzeko.  
Jatorrixa Unbeko zelaixan.  
Ez da edatekua.



Urkizu

Sorreria: 1988.  
Ez daka urik.



Wenzeslao Orbea

Jatorrixa hainbat metrotara.  
Ez da edatekua.



Urkizu

Sorreria: 1900.  
1954an Errastiren forja zaharraren behian zeguan eta 1975ian errepidiaren beste aldetik Urkizuko parkera eraman eben.  
Jatorrixa Iparragirren eta paso emoteko giltza Urkizu 32ko garajietan dago.  
Edatekua.



Ziriako Agirre

Lurrian.  
Ez da edatekua.



Zumaran, Bidebarrieta kalia

Sorreria: 1800, Zumaran jaunak berak eginda.  
Jatorrixa itturrixan bertan.  
Ia emaririk gabe / edatekua.

## 2020ko GIDA

Eibarko enpresa,  
zerbitzu, komertzio,  
tabernak...

aurkibidea  
gremioka

Abokatuak.....	74	Autobusak.....	83
Bitartekaritza familiarra.....	74	Autoeskolak.....	83
Aholkularitza.....	75-76	Bankoak.....	83
Enpresen aholkularitza.....	76	Belardendak.....	83
Aisialdia.....	76	Bidaiak.....	83
Akademiak.....	78-79	Bitxitegiak.....	83
Hizkuntza akademiak.....	78	Bizikletak.....	83
Musika akademiak.....	79	Bulego materiala.....	84
Sormen akademiak.....	79	Concept Store.....	84
Albaitariak.....	79	Coworking.....	84
Alderdi politikoak.....	79	Croissanteria.....	84
Altzariak.....	80	Degustazioa.....	84
Animaliak.....	80	Dekorazioa.....	85
Antenak.....	80	Armairu enpotratuak.....	85
Ardoak.....	80	Diseinu grafikoa.....	85
Argazkidendak.....	80	Distribuzioa.....	85
Argazkilariak.....	80	Soldadurarako gasak eta materialak..	85
Arkitektoak.....	80-81	Edariak.....	86
Arkitekto teknikoak.....	81	Egurra.....	86
Armak.....	81	Barnizatuak.....	86
Eskopetak.....	81	Eibarren Akebai.....	86
Aroztegiak.....	81	Elektrizitatea.....	86-87
Arraindegiak.....	81	Elektrodomestikoak.....	87
Artiledendak.....	81	Elektroerparazioa.....	87
Aseguruak.....	82	Elkarteak.....	87-88
Autoak.....	82-83	Energia berriztagarriak.....	88
Autoendako ordezeko piezak.....	82	Enbalajeak.....	88
Banatzaile ofizialak.....	82	Entzumen zentroak.....	89
Gurpilak.....	82	Eraikuntza.....	89
Konponketak.....	82-83	Erreformak.....	89-90

Errehabilitazioa .....	90-91	Txakurrendako ileapaindegia .....	103
Erremintak .....	90	Industria .....	104-105
Eusteko tresnak .....	90	Besteren prebentzio zerbitzua .....	104
Errotulazioa .....	90	Ingeniaritza .....	104
Laser markajea .....	90	Makinak .....	104
Eskulanak .....	90	Metalezko eskubilak .....	104
Estankoak .....	92	Informatika .....	106
Estanpazioa .....	92	Erreziklajea .....	106
Estetika .....	92	Inmobiliariak .....	106-107
Etxez-etxeko laguntza .....	92	Inpermeabilizazioa .....	107
Farmaziak .....	92	Inprenta .....	107
Parafarmaziak .....	92	Inpresio sistemak .....	107
Fatxadak .....	92	Isolamenduak .....	107
Ferreteriak .....	93	Iturginak .....	107
Fotokopiadendak .....	93	Izozkiak .....	108
Frutadendak .....	93	Janaridendak .....	108
Funerariak .....	93	Supermerkatuak .....	108
Hilerrri lanak .....	93	Jantzidendak .....	108-109
Garabiak .....	94	Erropa konponketa .....	108
Garbiketak .....	94	Galtzerdiak .....	108
Garraioak .....	94	Jantzi tradizionalak .....	108
Gasolindegia .....	94	Jantziak eta oihalak .....	108
Gestoriak .....	94	Jostundegiak .....	109
Giltzak .....	94	Konfekzioak .....	109
Gimnasioak .....	95	Lanerako jantziak .....	109
Gizarte zerbitzuak .....	95	Talla handiak .....	109
Gozokiak .....	95	Umeendako jantziak .....	109
Gozotegiak .....	95	Jatetxeak .....	109-110
Grow shop .....	96	Indiako janaria .....	110
Harategiak .....	96	Sagardotegiak .....	110
Haurreskolak .....	97	Jostailudendak .....	110
Hautzaindegia .....	97	Kirolak .....	110
Hezkuntza .....	97-101	Kirol apustuak .....	110
Euskaltegiak .....	97	Pilota .....	110
Ikastetxeak .....	98-101	Kirolidendak .....	110
Enpresa hezkuntza .....	100	Komunikabideak .....	110
Hornidura industrialak .....	102	Komunikazioa .....	110
Hotelak .....	102	Komunitateak .....	111
Nekazal turismoa .....	102	Konplementoak .....	111
Igeltseroak .....	102	Umeendako konplementoak .....	111
Igogailuak .....	103	Kortinak .....	111
Ikusentzunezko zerbitzuak .....	103	Kristaldegiak .....	111
Ileapaindegia .....	103	Kromatuak .....	111
Gizonezkoendakoak .....	103	Lana .....	111
Produktuak .....	103	Aldi baterako lan enpresak .....	111



Leihoak .....	112	Mutuak.....	119
Lentzeria.....	113	Neumatika .....	120
Liburudendak.....	113	Nutrizio eskola.....	120
Lokutorioak.....	113	Oihalak .....	120
Loradendak.....	113	Oinetakoak .....	120
Loteria .....	113	Konponketak .....	120
Ludoteka.....	113	Okindegiak .....	120
Makina saltzaileak .....	113	Opariak.....	120
Masajeak.....	114	Optikak .....	120-121
Medikuntza eta Osasuna.....	114-119	Ortopedia.....	120
Akupuntura .....	114	Ostalaritza .....	121
Dentistak.....	114-117	Parking-ak.....	121
(ortodontzia funtzionala) .....	116	Perfumeriak .....	121
(protesikoak).....	116	Pertsianak.....	121
Dietetika eta nutrizioa.....	116	Pinturak .....	122
Errekonozimenduak .....	116	Pizzeriak .....	122
Fisioterapia.....	116	Plastikoak .....	122
Homeopatia.....	116	Prensa eta aldizkariak .....	122
Homeopatia-mesoterapia.....	116	Publizitatea .....	122
Logopedak.....	116	Reiki.....	122
Medikuntza naturala .....	116	Segurtasuna.....	122
Naturopatia .....	116	Serrailagintza .....	122
Oftalmologoak.....	116	Sindikatuak.....	123
Osteopatia.....	116	Sukaldeak .....	123
Podologoak .....	118	Tabernak.....	124-126
(Podoposturologia) .....	118	Kafe antzokiak.....	126
Psikologia .....	118	Tanatorioak.....	126
(Bikoteen bitartekaritza).....	118	Tapizariak .....	126
(Psikopedagogia) .....	118	Tatuajeak eta piercing .....	127
(Psikoterapeuta) .....	118	Tindategiak.....	127
Radiologia.....	118	Garbiketa autozerbitzua.....	127
Reflexologia .....	118	Toldoak .....	127
Sexologia .....	118	Webguneak .....	127
Terapia bisuala.....	119	Aurkibidea orrika.....	70-73
Tokoginekologia.....	119	Egutegia.....	128-129
Traumatologia eta ortopedia.....	119		
Urologia .....	119		
Zoru pelb. errehab.....	119		
Mekaniketarako tresnak .....	119		
Mekanizatuak .....	119		
Menajea .....	119		
Mertzeriak .....	119		
Motorrak .....	119		
Muelleak .....	119		
Musika tresnak .....	119		

# aurkibidea

## orrika

...ETA KITTO!.....	87, 110	ANDER ARROITAJAUREGI .....	119	ASTIXA A.Z.....	76	BOSARK.....	80
+QWAPOS .....	103	ANDIA .....	96	ATELIER 11.....	85, 111	BOSSA .....	125
2D .....	103	ANDONI GISASOLA.....	79	ATERPE .....	124	BOSTON .....	103
3 U ASESOSES.....	75	ANE CAMPOS .....	116	AUDIOCENTRO IGMAR.....	89	BOULEVARD .....	125
3. ADMINISTRAZIOA .....	113	ANE MENDIA .....	116	AUKERA .....	106	BURBUJAS Y MAS .....	111, 121
4. ADMINISTRAZIOA .....	113	ANSA .....	83	AUTO-REP. AUERRERA.....	82	C&J CERRAJEROS .....	122
A. KEIN GROUP .....	75	ANTXON .....	95	AUTODISCO .....	82	CAMILO ALVAREZ .....	89, 102
ABBIE WHITE .....	78	ANUKESTUDIO .....	85, 122	AUTORECAMBIOS UMBE.....	82	CANON.....	84
ACHA .....	111	APAINDU .....	103	AYA-AGUIRRE Y ARANZABAL .....	81	CAPI .....	92, 121
ACITAIN S.A. ....	94	ARA TATTOO.....	127	AYC AUTOMATISMOS .....	122	CARACIL SEGUROS .....	82
ADATS .....	103	ARANCETA AZPITARTE.....	75	AZCUE, HNAS. ....	92	CARE.....	87
ADHARA ZENTRO.....	92, 95	ARANTZA ALVAREZ .....	118	AZKENA .....	124	CARITAS .....	87
ADITZE.....	74, 118	ARAT HORTZ KLINIKA.....	114	AZKOAGA HNOS.....	92	CARLOS ESTANKOA.....	92
ADOLFO JAINAGA .....	79	ARBI .....	110	AZPIRI.....	109	CARLOS HARATEGIA.....	96
AECC.....	87	ARKIGREEN.....	80	B THE TRAVEL BRAND-BARCELÓ.....	83	CARROCERIAS ARANE.....	82
AEK .....	97	ARKUPE .....	124	BACO LEKU .....	80	CARROCERIAS MAK .....	82
AFESD.....	87	ARLA.....	85	BADAS .....	114	CARROCERIAS ROJO .....	83
AGIFES .....	87	ARMAGILE ELKARTEA .....	87	BAGLIETTO .....	85, 122	CARTONAJES EIBAR .....	88
AGME AUTOMATED		ARMERIA ESKOLA .....	98	BAISI .....	124	CASA GALICIA .....	109
ASSEMBLY SOLUTIONS.....	104	ARMERIAKO IKASLE OHIAK .....	87	BALATZ .....	80	CASAMANIA .....	85
AGUIÑASPI .....	124	ARNASTU .....	92	BALKOI .....	124	CASARSISTEMAS .....	106
AHOTS LAN .....	116, 118	AROR .....	116, 118	BAMBI .....	120	CASINO ARTISTA EIBARRES .....	125
AIZPIRI, C.B. ....	108	ARRATE.....	83	BANKOA .....	83	CASTAÑO .....	92
